

Noqua!

H A M A B O S K A R A

2001ko urtarrilaren 12a VI.urtea

Usurbil, 104. zenbakia



**Kalezarko bide
berria ireki dute**

Aizpurua



Zure mahaiia ondo horni-
tu nahi baduzu gurean
duzu aukera!

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25
Telf: 943 36 12 20

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRA TUAK,
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT, TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK, EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetarik, HILEKOAK: 15.000 pzl.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA




Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



TXIMINIA ALTZARIAK



Poligono Osinalde
USURBIL (Gipuzkoa)
Tfno.: 943 37 09 66 - Fax: 943 37 29 32

ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Iraia eta Ianire**. Laster zuen urtebetetze egunak direnez muxu asko eta zorionak familia osoaren partetik.



Zorionak etxeko txikiari, hil honen 13an 5 urte beteko baititu. Ondo pasa **Jokin!** Etxekoan partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titulu-
ren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri jarri
beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urtarrilaren 22an
Ekartzeko azken eguna: urtarrilaren 19a

Hildakoak



2000-12-29
**Juan Antonio
Illarramendi Zubeldia**
80 urte
Kaleberri



2000-12-31
**Mariano Aizpurua
Aristimuño**
69 urte
Kaleberri

Jaiotzak

**Mikel Garmendia
Enparantza**
2000-12-13
Aginaga

**Paul Izagirre
Aginaga**
2000-12-14
Arratzain bidea

**Leire Orbegozo
Borda**
2000-12-19
Kaleberri

**Oroitz Bruño
Zinkunegi**
2000-12-24
Atxegalde

**Maddi Alegre
Eснаоla**
2000-12-24
Santuenea

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan
6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan
7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Bai, esan?

• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea	37 32 28
• Agerialde ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkarte	37 17 51
• Oiardo kirolegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte	37 15 94	• Eusko Tren	47 09 76
• Etumeta	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21

ERRAZKIN

**Igeltseritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santuenea Mob: 629 42 05 65

MAHUKA

BEHERADENAK

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:



Ekuadorreko Esmeraldas lurraldeko errealitatea

Jokin Zurutuza (Usurbilen jaioa)

Adsis elkarteetako haurridea izanik apaiza naiz eta Ekuadorreko Esmeraldas-eko elizan lan egiten dut. Gainera, bertako Unibertsitate Katolikoan errektore ordea ere baniaz.

Egun batean, 2000. urteko otsailaren 18an, ostiral batean hain zuzen ere, Ekuadorreko Esmeraldas lurraldeko Borbón eta San Lorenzora zioan jendez betetako autobus batean nindoan. Sei orduko bidaia zen eta zati askotan errepide kaxkarra zen nagusi. Asteburua gainean genuen eta bidaiarietako asko astea hirian lanean edo ikasten pasa ondoren beraien herrira zioazen, beraien etxeetara. Ni, berriz, autobus hori hartzeko unibertsitatean nuen lanetik seiretan irtena nintzen, normalean baino ordubete lehenago. 45 minutuko ibilbidea nuen, trapa-ko monastegira bainindoan asteburua bakarraldian pasatzera. Bide batez, nire jatorrizko komunitateko anaiek eskatuta astebeteko gogo-jardunen presaketak hasteko asmoa nuen, duela 3 urte bainituen azken aldiz.

Duela bi edo hiru aste hasi ziren euriteak, eta nahiz eta beste urte batzuetan bezain euri asko ez egin paisaia erabat aldatzeko nahikoa zen. Lehorte garaian -batazbeste sei hilabete urtean- hirigunea eta bere inguruneak deforestazioaren eraginez estepa baten gero eta itxura haundiagoa zuten. Baina

nahikoa ziren euri egun batzuk guztia berdeberritzeko.

Ni autobus gidariaren atzean egoten den eserlekuan nindoan, leihoaren ondoan. Niño fenomenoak duela bi urte errepidean egindako kalteak ikusten nituen, oraindik konpondu gabe baitzeuden. Hainbeste denbora pasa ondoren honelako gauzak ikustera ohituta geunden guztiok. Bide batez errepidearen ondoan zenbait familiek lursail batzuk okupatu eta kanbera, zink eta egurrarekin etxolak eraikitzen begitatu nituen. Duela urte batzuk baso tropikalak zirenak behie jaten emateko urtebetez artasoro bihurtuta zeuden.

Errepidearen ondoan petroliobidea ere ikus nezakeen, Ekialdetik mendebaldera Andes-eta-ko mendikatea zeharkatuz hiriaren ondoan zegoen birfindegira zihoan. Zenbaitetan, lurjaziak izateko arriskua zegoen tokietan, agerian zegoen. Horregatik Niño fenomenoak eta giza akatsek (ahalik eta leunen esanda) bereak eta bi egin zituzten lurjazi baten ondorioz petroliobide bat hautsi eta petrolio hiritarrak garbitzen ziren ibaira joan ondoren honek su hartu eta hainbeste jende hil zenean. Gaizki probetxatutako eta banatutako zenbat aberastasun ekarria zuen petrolioak! Dirugoseak, alferrik galtzeko eta boteredunen aberaste azkar eta gorenak ekarri duen pobrezia herrialde honetara...



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Rosario Barreda Ortega

Zortzi urte daramatza eskulan irakasle modura eta lanak ondo egiteko errezetarik onena pazientzia dela aitortu digu.



Eskulan irakasle modura aritzen zara. Noiz hasi zinen?

Duela zortzi urte inguru hasi nintzen. Lau edo bost urte ibili nintzen Zarautzen ikastaro batzuk egiten.

Gure Pakea Elkartearen bidez joan nintzen hara eta geroago hemen hasi nintzen jendeari erakusten. Beraz, ikasten nuen bitartean erakutsi egiten nuen. Nik hala ere, gauza batzuk nire erara egiten eta erakusten ditut eta ez han erakutsi zigiten bezala.

Nori zuzenduta daude ikastaro hauek?

Jende helduari zuzenduta daude eta gustatuko litzaidake gazteei eman ahal izatea, baina ez daukat denborarik.

Jende asko biltzen al zarete?

Hamalau lagun inguru biltzen gara, denak emakumezkoak. Ez dakit gizonezkoekin zer gertatzen den, hor ibiltzen naiz batzuk ekarri nahian baina ezinezkoa egiten zait.

Noiz izaten dira?

Astelehen eta ostegunetan arratsaldeko hiruretik seietara.

Non biltzen zarete?

Kalezarren. Garai batean Etxealdian egon ginen, lau urte inguru, baina orain Kalezarko Udarregi ikastola zen horretan gaude.

Zein eskulan mota egiten dituzue? Zein dira gehien erabiltzen dituzuen materialak?

Eskaiola, egurra... denetik erabiltzen dugu, baina gehienbat kartulina antzekoa den paper mota

batekin aritzen gara. Denetik egiten dugu, baina jendeak gehienetan koadroak egin nahi izaten ditu.

Erakusketarik egiten al duzue?

Bai. Urtean behin, San Juan jaietan erakusketa bat egiten dugu geure lokalean. Lehen Santixabeletan ere egiten genuen Udarregi zaharrean, baina arazoak izan genituen eta orain bakarria egiten dugu. Jende asko etortzen da, baina dudarik gabe umeak dira gehien gozaten dutenak.

Nolako esperientzia da zuretzako eskulan irakaslea izatea?

Oso polita. Klaseak baino zerbait gehiago dira izaten ditugunak. Urte asko daramakizkigu elkarrekin eta ja lagun talde bat gara, badakigu han hitz egiten ditugun kontu asko ez direla handik atera behar...gure artean konfidantza handia dago.

Zein da eskulanak ondo egiteko erabil daitekeen errezetarik onena?

Pazientzia handia eskatzen du eskulanak ondo egiteak eta pazientzi handiagoa edukitzen ere laguntzen du. Erlajatzeko ere primerakoa da eta niri pertsonalki asko laguntzen dit. Jende askorentzat denbora zerbaitetan pasatzeko lagungarria izaten da. Oso esperientzia polita izaten ari da niretzat eta askotan oso lagungarria da, egunero gauzak ahaztu eta norberarentzat denbora hartzeko. Jendea gustora dagoela ikustea ere oso garrantzitsua da niretzat.

Olatz Lasagabaster

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Tel: 943 36 43 64



**Behoko kalea. 4
Tel: 943 36 57 42**

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

**FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**

**JOSUE
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

*Juan Jose enea. 6 Tel: 943 36 05 50
Kalezar 606 37 21 05*

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Urte zahar eguneko sustoa

Urte berri on guztioi. Gabonak joan zaizkigu eta hemen gara berriz ere. Urte zahar gauean festa giroa eta parranda toki guztietan nagusitzen denez, goizean kotxe istripuen beldur izaten gara askotan. Goizaldean ez, baina ilunabarrean susto galanta izan genuen auzoan.

Gau ilunean, haize bolada gogorak eta euri tantak ere bazirela, auzotik Galardi parean kotxe ilada ikusi genuen eta berehala ambulanzien sirena hotsa ere atzeman genuen. Pixka batera, kotxeak San Estebandik gora bidali zituzten, errepide nagusitik ezin baitzen pasa.

Ordurako auzotarrok bagenekien Sutegi Zaharreko Katti zela istripuan kaltetua, bere semeak esan baitzigun. Diru-

dienez, afaltzera etxera zetorrela auto bat furgoneta azpira sartu zitzaion, ez genekien, ordea, larria zen ala ez.

Ordubetera bidea zabaldu zuten eta Karlosek, bere senarrak, kontatuta jakin genuen, erietxean zegoen arren, Kattik zauri arinak zituela. Beste kotxe-ko gidaria, ordea, egoera larriagoan omen zegoen.

Aginagako neska batek gidatzen zuen hirugarren auto bat ere nahasi zen istripuan, beste autorik ez jotzearren, ibai aldera erori baitzen. Hala ere, ez omen zitzaion ezer gertatu.

Aipatutako kontu hauek guztiak Permeindegi baserriaren parean gertatu ziren. Hemen bihurtune arriskutsu batzuk daudenez, istripu ugari gerta-

tzen dira. Duela hilabete bat kamioi bat irauli zen mendi aldera eta ibai aldera, berriz, autoek hesia jo eta maiz apurtzen dute.

Bestalde, behin baino gehiagotan aipatu dut erribera bidean, auzotik Santuenea artean, jende ugari ibiltzen dela paseatzen goiz-goizetik hasita. Horietako zenbaitek aipatu didate euria egiten duenean ura presatu egiten dela bidean aurrea egitea oztopatuz eta, ondorioz, sarritan ibili nahi eta etxera bueltatu beharra izaten dutela, putzuak direla eta, pasatzeko aukerarik ez dutelako. Ea dagokionak konpontzen duen.

Azkenik, Erroizpe elkartean San Sebastian egunean barrikotea izango da.

KALEBERRI

Eneko Harreguy



Opariak

Iupi, iupi! Erregeak datoz, baietz! Meltxor, Gaspar eta Baltasar dira. Bazen garaia. Urte hau oso-oso luzea izan da, baina lo bat falta da biharko eguna iristeko, baietz!

Gaur, oso ondo pasa dut: goizean frontoira joan naiz erregeei nire oparien berri ematera. Gutunazal batean jarri diet ze opari nahi ditudan (txintxo-txintxo portatu naizelako!); baloi bat- Realekoek erabiltzen dutena bezal-bezala-koa-, patinete bat, kotxe azkarraren jostailua eta bideojoko pila bat. Nire lagunek ere bideojokoak eskatu dituzte, eta honela txandakatu ditzakegu.

"Pium-pium, tsutsutsutsu, tsutsutsutsu, pam-pam!!"

-Aaaaaaaaaahhhaaahh!!Aaaaaaaahh!!

-Zer izan da hori? Zer duzu maitia? Zerbait gertatu al zaizu? Zer dela eta oihu horiek!?

-En, En, Endika zen. Goi-gerlari baten modu, moduan jantzita; bu, buruko ileetatik han, hankeko azkazaleta, taraino traje han, handi batekin. Et, eta ehun ti, tiro batera egin di, ditzaken me, me, metraileta bat zeukan, pa, pa, patinete baten gainean abi, abiadura bi, bizi-bizian zetorren eta, eta ni apuntatzen ninduen; ez, ez

nau

jo pe, petrilaren az, azpian babestu na, naizelako.

-Ez egin negarrik Julen. Amets gaiztoa baino ez da izan! Zu ohean zaude, orain arte lo, eta une txar hori gezurrezkoa zen. Orain, nahi baduzu jaiki zaitezke, eta egongelara joan. Erregeak etorri dira eta opariak zure zapatatxoaren ondo-ondoan daukazku.

-Ez dut nahi, ez dut naaahiii ez patineterik, ez jostailurik eta gutxiago armak eta borrokak agertzen diren bideojoko txepel horiek! Baloia bakarrik nahi dut, eta Mikel Aranburu bezalakoa izan, ez Arnold Swesche-

KALEZAR

Andoni Udabe



Zaharrak joan, berriak etorri

Dagoeneko 2000. urtea ere pasa dugun honetan, garai berri batzuei heldu behar diegu, betiere aurrekoak baino hobekiago izango direnaren esperantzaz.

Azken festa tripontzi hauen ondoren bat baino gehiago izango da janorduak egunero-kotasunera bueltatu nahian, eta neronek ere zaku horretan sartzen naiz.

Urte berriarekin ilusio berriak pizten zaizkigu. Jatordu astunetatik (nork ez ditu mazapanak, polboroiak, turroia, otarrain-xkak edo antzekoak jan ondoren tripa urdailak harriz beteta baleude bezala somatu?) dietak (inoiz egiten ez ditugun

horietakoak) egitera pasatzen gara, kirola egin nahi izaten dugu, eta hori gutxi balitz poltsikoak ere gabonetan astinduta latzak jasan ohi ditu.

Kirola mintzagai hartuta guztiok animatu nahi zaituztet mendira irtetera, elurretara (nonbait izan da eta), goiz parteko buelta egitera...

Oso kirol osoa da eta, gainera, aukera eta modu asko eskaintzen du, beti ariketa batera mugatu gabe: eskia, mendi-bizikleta, eskalada, goimendia...

Ea, bada, usurbildar asko animatzen garen, eguraldia lagun, esfortzu baten ondoren bista, paraje eta paisaia politekin gozatzeko sari bikaina lortzen baita, eta ez dago oso urrutira joan beharrik, gure Euskal Herri maitea baino lurralde oparo eta politagorik ba al da nonbait?



ATXEGALDE

Eta orain nola?

Eta orain zer? Orain nola azaldu nire sabelari turroi eta kroketa jan horiek guztiak aldi baterako baino ez zirela? Nola azaldu nire gibelari txanpaina ez dela egunerokoa? Nola argitu nire gorputzari bukatu direla nahi duen arte ohean etzanda egoteko sasoiak? Berriz ere ditxosozko iratzargailuaren morroi dela?

Eta latzena eta zailena; nola ohitu, berriz ere, nire burua etengabe martxan egotera umore petralik gabe?

Aspaldi erabaki nuen gabonak ez nituela gustuko. Txuleta usainak eta ardo zaporeak guztiak txoratzen gaitu eta "ogi pusketa baigina", hor zehar ibiltzen gara on aurpegiaren zamari ezin eutsi. Aspaldi konturatu nintzen urte bateko

azkena eta hurrengoaren lehengo berdina zirela, eta ezberdintasunik izatekotan, beste egunen arteko ezberdintasunak baino ez zirela.

Eta aspaldi konturatu izanagatik, bai ni eta bai beste asko, "gabonen" iruzurrean erortzen gara "tonto-tonto". Eta heldu eta zentzudun sentitzen gara bost urteko haurra telebistako iragarkiak engainatu duela konturatzean. Gu, ez, kida! guk nola sinistu musika epel horrenpean sortarazten duten giroa? Gu horretaz guztiaz kanpo gaude, ez gara haurrak.

Txorakeriak! Pertsona txikitxo hori Baltasarri begira zeharo txundituta eta bat-batean gozokiak bete-betean jo zuen aurpegian. Haurrak negar egingo luke gustura, baina,

nola negar egin Baltasarrek emandako golpeagatik?

Haur zein heldu, haundi zein txiki, inor gutxi gordetzen da "gabonen gaitzetik". Eta zergatik ote? Ziurrenik eguneroko hori hausteko zerbait behar dugulako. Eta horretarako, gorputza janariz eta edariz zigortzen dugu. Ohiturak, lo orduak, betiko gauzak "aldrebesten" ditugu. Eta zertarako?

Ziurrenik orain berriz ere egunerokotasuna ia-ia gustura hartzen delako, betiko lekuak, betiko lanak, betiko jendea, betiko... Hori bai, behin betikotasun horretara ohitzean etorriko da Aste Santua edo...eta berriz festak, jaiak, ordutegi aldaketak,...ez da formula txarra, baina izango da besterik, ala?

Amagoia Mujika



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Kronistei lanean jarraitzeko deia

Urte berriak burukomin ugari sortzen dizkio Kalejiran ataleko arduraduna den Amagoiari. Izan ere, urte berriarekin batera orain arteko kronistak ez dutela jarraituko entzutearen beldur izaten baita.

Askotan pentsatu izan dugu kronistok, batez ere gai gosez gaudenean eta Amagoiaren deia entzuten dugunean, kronista izatea "koñazo" bat dela eta horrek gure arduratxoaz uzteko gogoaz areagotzen du. Zenbat aldiz pasa ote zait burutik, Amagoiari ez dudala jarraituko esan behar diodala.

Baina, segituan haren aurpegi irudikatzen dut; "puff, eta

orain zer egingo dut? Kronistak bilatzea lan erraza ez, eta orain bat gutxiago!"

Askotan etorri izan zarete *Noaua*ko egoitzara kronika ekartzera gogo txarrez, (eta hau ez dezala inork gaizki ulertu) eta zuen ordez beste bat bilatzea, askotan idazteko ezer ez duzelako. Ni ere, sarritan egoera eta trantze txar horretan egon izan naiz, baina tira! horrek badu konponbiderik.

Nik kronista bezala, eta *Noaua*ko langile bezala, zera esan nahi dizuet kronista guztioi eta noaukide guztioi: *Noaua!* hamabostero gure etxeetan, tabernan, lagun artean,... egon dadin zuen laguntza ezin-

bestekoa da. Zuen laguntzak bermatzen du *Noaua!* bizirik irautea egunez egun. Eta askotan hontaz jabetzen ez bagara ere, zuek egin duzue posible milurteko lehen *Noaua!*, hau da 104. alea, kalean egotea.

Horregaitik, eta inork ez dezala pentsa "peloteoa" baino ez dela idatzi hau, *Noaua*ko irakurleei gai interesgarriak eskeintzerik ez dugula ez dezagun pentsa. Askotan uste duguna baino interes haundiagoa dute. Beraz, beldurrak uxatu eta *Noaua*ko Kalejiran atalean idatzi nahi duen oro animatu dadila, egungo kronistok eta *Noaua* eskertuko dizugu eta.

URDAIAGA

Alazne Begiristain



San Esteban txiki eta erregeak

Lehenik eta behin, URTE LBERRI ON guztioi. Ea hasi berri dugun 2001 urtea aurrekoa baino hobea izaten den.

Milurtez aldatu garen honetan, gure auzoan ez da aldaketa nabaririk izan, baina oraingo honetan, badut zer kontaturik.

Abenduaren 26an San Esteban Txiki eguna ospatu genuen. Goizeko 11.00etan meza nagusia izan zen eta, ondoren, salda eta pintxoak dastatu ahal izan zituen bertara inguratu zen jendeak. Eguraldi ederra izan genuen, nahiz eta hezurretaraino sartzen zen

haize freskoa ere hantxe izan.

Bestalde, urtarrilaren 5ean, San Estebango ermitatik hasi zuten beraien jaitsiera Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek, zaldi, antortxero eta guzti.

Arratsaldeko seiak aldean abiatu ziren eta herriko frontoian amaitu zuten beren ibilaldia.

Ez dakit zuen etxeetara erregeak iritsi ote ziren edo, bi aste lehenago, Andatzatik barrena



jaitsi zen Olentzerok bisitatu ote zituen zuen etxeak, baina egun hauek ongi pasa dituzuela pentsatu nahi nuke.

Besterik gabe, animo urte berri honi indarrez ekiteko!

AGINAGA

Maria Angeles Arruti



Gutxi izanagatik ondo moldatzen gara

Urtea ondo bukatu duzue-lakoan nago edo, behintzat, hala espero dut. Gure auzo txiki honetan ere halaxe egin genuen.

Urtea amaitzearekin batera, Intxaurreta auzokide guztiak lehiora atera ginen. Izan ere, bertakoa den Joxe Azurmendik izugarrizko suziriak bota baitzituen. Hala, berebera duen umoreak eta alaitasunak inguruko guztiak alaitu gintuen.

Izan ere, norbaitek beti gure txoko honetaz ari naizela pentsa badezake ere, azpimarrazteko modukoa da auzoan dugun giroa. Gutxi gara,

baina guztiak primeran moldatzen gara eta ez dugu aitzakia askorik behar izaten elkartzeko.

Gabon garaia pasa berri den honetan, mezatan ere giro benetan berezia izan dugu. Bai



eguberri bezperan, gabon egunean zein errege egunean ohikoa ez diren elizkizunak izan baititugu. Adibidez, gabon egunean jaiotza bizia izan genuen elizan, ez zen ezer falta han ziren baita erregeak ere.

Herriko gazteenek ere ospakizunean parte hartu zuten baserritarrez jantzita. Hauek beren eskaintzak eta opariak zituzten elizkizunean. Egun benetan bereziak, beraz, pasa berri ditugunak.

2001. hau 2000. urtea bezain ona eta, hala behar izanez gero, hobea izan dadila guztiontzat. Urte berri on guztioi!

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Gureaz ere gogoratu ziren

Ez Olentzero ezta hiru erregeak ere ez dira ahaztu aurten, beste urteetako bideari jarraituz, gure herri honetaz.



Hala, pasa den abenduaren 24an Euskal Herriko ikatzgilea Zubietan izan zen. Kimu Berria auzoko taldeak lagunduta eta 30 bat txiki zein haundik osatutako taldearekin batera baserri baserri zein etxe etxe ibili zen kantari Olentzero laguntza ederrarekin.

Olentzeroren antzera, Meltxor, Gaspar eta Baltasar ere ez ziren ahaztu Zubietako haurrei bisita egiteaz. Hala, urtarrilaren 5ean, Berri baserri abiatu zen ohiko kabalgata.

Ez zen ezer falta izan, hiru erregeak zaldi zuri ederren gainean etorri ziren, beren ezkuta-

riak lagunduta. Ez zituzten ahaztu, gainera, urrea, intentsua eta mirra. Haur ugari hurbildu zen hiru erregeak mirespenez ikustera, eta bide batez txintxo-txintxoak izan zirela esan eta auskalo zenbat gauza eskatzera.

Magiaz beteriko gauak samin puntuaz gogoratzen ditugu heldu bihurtu ahala eta txiki-en lilura ikusita, gu ere liluratuta. Halakorik! Hain pertsona txikiak nola bete lezake hain toki handia? Ba, halaxe da. Ziur gabon hauetan ere, etxean txikitxorik izan bada, begirada oro hari zuzendu zaizkiola.

Luis Mari Ormaetxeak udaleko kudeaketa ardurak utzi ditu

Eusko Alkartasunako Luis Mari Ormaetxeak udaleko batzordeetan dituen kudeaketa ardurak bertan behera uztea erabaki du Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza informatiboko batzordeburu arduratik dimittituz. Alkatezari zuzendutako idatzi batean erabaki hori hartzera behartu duten Usurbilgo Eusko Alkartasunaren hausnarketak jasotzen dira.

Usurbilgo Euskal Herritarrok eta Eusko Alkartasuna alderdiek 1999-2003 legealdirako udal akordioa sinatu zuten iazko maiatzaren 16an. Akordio horren ondorioz Luis Mari Ormaetxea Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza batzordeko batzordeburu bihurtu zen. Pasa den urtarrilaren 2an, ordea, udal kudeaketa ardura horietatik dimittitzen zuela esanaz idatzi bat aurkeztu zuen udalean.

Egoera politikoaren aldaketa

Idatzian esaten denaren arabera gatazka politikoa gainditzeko eta nazio eraikuntzan lan egiteko hartu zituzten konpromezuek ez dute aurrera egin. Egoera politikoa aldatu egin da eta EH-ekiko hasieran zituzten itzaropenak desegin dira Luis Mariaren esanetan. Horrenbestez, "gaur egungo egoera politikoaren aurrean Usurbilgo EH-k azaltzen duen jarrera hitzartutako udal gobernu programan jasotzen denarekin kontraesanetan dago".

Udal kudeaketari dagokionez, EH-k Udal Gobernu Programa ardatzat ez duela esaten da idatzian. Honela, bes-

teak beste EAren ardurapean zegoen Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza batzordean Usurbilen haurtzaindegi bat martxan jartzeko proiektu bideragarri bat osatu ondoren, ulergaitzak diren planteamenduekin proiektu hau oztopatzen eta atzeratzen aritzea leporatzen dio EH-ri eta kirol, kultura, zerbitzu sozial eta udal langileen arloetan dauden hutsuneak ere azpimarratzen dituzte.

Bi alderdien arteko komunikazio eskasa

Horrekin batera lankidetzaren epe horretako ezaugarrietako bat, EH eta EAren arteko komunikazioa eskasa izan dela azpimarratzen du Eusko Alkartasunak. "Erantzun zuzenaren informazioa eskaintzeko prest eta gu izan gaitela galdetu ez dugunak. Baina informazioa ez duenak ez daki zertaz galdetu, informazioa duenak, berriz, badaki zer esan behar duen. Proiektu haundiak gutxi gora behera nondik zihoazen bagenekiz-



kien, baina eguneko martxa, detaileak... hortaz ezer gutxi. Zinegotzien pertsonalitate eta hauen arteko "sinpatari" leporagarri liteke, baina estrukturalki ez zaio konponbide eraginkorrik eman; batzordetako informazioa ez da pasatzen, hilerko koordinaziorako egin beharreko bilerek ez dute gorputzik hartu, alkateak hirigintza batzordeak berari komeni zaion orduan egiten ditu, beste zinegotzien eskakizunei jaramonik egin gabe. Lankidetzaren zintzo batek beste zerbait eskatzen du, ez bakarrik, beste zerbait gauzak bakean egiten uztea".

Udal Gobernu Programa ez omen da ardatza

EAren arabera Udal Gobernu Programa ardatz ez izateak udal kudeaketa iparririk gabe uzten du, unean uneko abagune eta aukeren arabera. "EH-ek idatzitakoari emango zion garrantziak kezkatzen gintuen ja Gobernu Programa idatzi genuenean, EH-ek egin zituen ekarpenak eta horiek aurkezteko modua gogortzen baitugu".

Bide batez Usurbilgo EA-k EH-ri zera eskatzen eta planteatzen dio:

- Idatzian adierazitako egoera eta gertaeren aurrean idatzizko balorazioa.
- Elkarrekin duten Udal Gobernu Programak berregokitze sakon baten premia duela.
- EA eta EH-ren arteko lankidetzaren gainbehera prozesuaren arduradun nagusia EH denez berari dagokiola iniziatiba hartzea eta akordio berri horren oinarriak finkatzea.

Xabier Pikabeak esandakoari erantzunez, Euskal Herritarrok Taldeak

Noaua! aldizkariaren 103. alean Xabier Pikabea zinegotzi-ohiak esandakoei erantzunez, hurrengoak argitu nahi ditu Usurbilgo Euskal Herritarrok-ek:

Xabier Pikabearen dimisioa.

Xabier Pikabearen dimisioa ez da gauza berria. Hirugarren aldiz aurkeztu du oraingoan. Aurrez beste bitan aurkeztu zuen, aitzakia ezberdinekin: 1997ko ekainean eta 2000ko maiatzean. Aurreko bietan EH taldeak lortu zuen atzeratzea. Hirugarrengoa ez da posible izan.

Non zegoen arazoa.

Egia da bera eta beste zinegotzi guztien arteko elkarlana oso zaila zela azken hilabeteetan. Euskal Herritarrok taldeak, alkatea barne, pertsonen gainetik jartzen du talde lana. Ezker Abertzalearen urtetako jarduera talde lanean oinarritzen da. Baina zenbait pertsonekin talde lana ia ezinezkoa da.

Usurbilen euskarak behar dituen baliabideak martxan jartzeko ez dugu arazorik ikusten. Arazoek eta dimisioak beste jatorri bat dute. Xabier Pikabeak duen ikuspuntu berbera ez dutenak euskararen etsaiak dira berarentzat. Xabier Pikabeak bere jarreran

arazo haundiak ditu, eta ondo ezagutzen dugunok hori ziurtatu dezakegu. Horren ondorioz arazoak sortu dira. Euskararen aldeko ekintzek behar dituen adostasunak ez ditu lortu eta arazoak konpondu ordez, bere itxikeri eta egoskorkeriaren ondorioz arazoak larriagotu egin ditu. Euskal Herritarrok taldearentzat ELKARRIZKETA da arazoak konpontzeko bide bakarra. Xabierrek, berriz, elkarrizketari muzin egin dio.

Aholku Batzarrak, batzorde informatibo irekiak...

Herritar guztionak diren baliabideak kudeatzeko aukeratu ditu herriak alkatea eta zinegotziak, eta beraiek dira azken finean hartzen diren erabakien erantzule eta arduradun. Zenbat eta herritar gehiagoren iritziak ezagutu orduan eta erabaki hobek hartu ahal izango dira. Behin iritziak entzunda, udal talde osoak eta udalbatza osoak hartzen ditu erabakiak.

Kultura eta euskara teknikaria.

Udalaren esku dauden baliabideak, material zein giza baliabideak, herritar guztien zerbitzura jartzen dira. Udal kudeaketa argi eta garbian mesedeak eta entxufeak ezin dira onartu. Herritar guztiek dute udal lanpostuetara aurkezteko eskubidea. Lanpostu bakoitzerako onena aukeratzan

saiatzan da udala. Kultura eta euskara teknikariaren lanposturako edozein herritarrek parte hartzeko eskubidea izango duela ziurtatzen du EH taldeak.

Euskara aurrera doa.

Asko izan dira eta zorionez izango dira EUSKARAREN ALDE lan egin duten usurbildarrak. Denon beharra du gure hizkuntza kuttunak, baina aldi berean inor ez da ezinbestekoa. Orain arte lanean aritu izan direnei gure esker ona eta etorkizunean ariko direnei gure desiorik onena luzatu nahi diegu.


Oharra: Usurbilgo EH taldeak *Noaua!*-ren bitartez, gizalege osoz eta berak udalean egindako lanarekiko errespetoz, publiko egin zuen Xabier Pikabea zinegotziaren dimisioaren onarpena. Onartze horren arrazoirik adierazi gabe, etapa hau klabe positiboan itxi behar zela ulertzen baikenuen.

Bestalde, Xabierren adierazpenek, modu pribatuan mantendu beharko liritekeen hainbat kontu argitaratzea behartu gaitu.

Horregatik, Xabier Pikaberaren dimisioak sortu duen zurrumbilo eta zurrumurruean aurrean ez dugu beste inolako adierazpenik egingo.

Usurbilgo Euskal Herritarrok

Pake Epaitegia lekuz aldatu da



Usurbilgo Pake Epaitegia lekuz aldatu da. Orain arte udaletzeko bulego batean egon badira ere, urtarilaren 10etik aurrera Kale Nagusia 4an dute egoitza berria.

1.359.146.021 pezetako aurrekontua izango du udalak 2001. urtean

Udalak 2001. urterako 1.359.146.021 pezetako aurrekontua onartu zuen pasa den abenduaren 27an egin zen udalbatzan. Bertan EHko zortzi ordezkariak eta PSEeko Amaia Goyaranek baieztatu botua eman zuten, EAkoak abstenitu egin ziren eta EAJ-PNVkoak aurkakotzat botua eman zuten. Hala ere, aurrekontu erreala 1.000 milioi ingurukoa omen da, Atalluko industrialderako iaz aurreikusitako diru kopurua aurtengo aurrekontuan sartu baitute.

Aurten ere ezinezkoa izan da alderdi politiko guztiak adostatuta aurrekontua onartzea. Iaz bezala, hazienda batzordean aurrekontuaren zirriborro bat aurkeztu zuen EH-k talde bakoitzak landu zezan. Ondoren talde bakoitzarekin bilerak egin ziren Agustin Lizasok esandakoaren arabera. "Zirriborroa egin aurretik talde bakoitzaren iritzia jaso nahi izan genuen zer inbertsio aurreikusten zituzten jakiteko. Ondoren, zirriborroa eman eta gero talde bakoitzarekin bildu ginen. Alderdi bakoitzak bere proposamenak aurkeztu zituen, batzuk onartu genituen, beste batzuk, berriz, ez. Batzuetan konponbide bat aurkitu dugu, beste batzuetan ezinezkoa izan da".

laz baino 220 milioi pezeta gehiagoko aurrekontua

Aurrekontua 1.359.146.021 pezetakoa bada ere, Atalluko lurren erosketak 370 milioi inguru puztu duela argi utzi nahi du Agustin Lizasok. "2001. urterako aurrekontu erreala 1.000 milioi ingurukoa da. Iaz 370 milioi aurreikusi genituen Atallurako, baina prozesua luzatu



egin denez iazko 370 milioi horiek urte honetako aurrekontuan sartu ditugu". Hala ere, iazkoarekin alderatuz aurrekontuak nabarmen egin du gora. 1.140.607.819 pezetatik (Atallu barne) 1.359.146.021 pezetakoa (Atallu barne) izatera pasa da.

643 milioi pezeta bideratu dira inbertsioetarako

Inbertsioek eta langile gastuek osatzen dute aurrekontuko gastuen oinarri nagusia, inbertsioetarako 643.258.459 milioi pezeta bideratuko baitira eta langile gastuetan 332.679.908 pezeta erabiliko dira.

Hirigintzari dagokionez, besteak beste Atallun lurra erosteko 370 milioi pezeta aurreikusi dira, Paris etxe atzeko parkea bukatzeko 110 milioi eta Hartzabalaren 100 m²ko lokala erosteko 23 milioi. Hezkuntza arloan haurtzaindegia eraikitzeko asmoa du udalak 2001. urtean. Oraindik erabakia hartu gabe badago ere, Kalezarko Udarregi ikastolan ezartzeko asmoa dute eta horretarako 8 milioi pezeta bideratu

dira. Kulturaren kultur etxe berriaren proiektua egiteko ia 8 milioi pezeta aurreikusi dira. Gaztediari dagokionez, Potxonea gaztetxe bihurtzeko 5 milioi pezeta erabiltzeko asmoa du udalak aurreproiektua eginga baitago dagoeneko. Bestalde, gizarte ekintzen barruan datorren urtean eguneko zentrua jartzeko diru kopuru bat aurreikusi da, 10 milioi pezeta hain zuzen ere. Azkenik, zerbitzu eta obretan trafiko antolaketa berria aurrera ateratzeko 11.500.000 pezeta bideratuko dira. Izan ere, Kale Nagusiko proiektua gauzatu baino lehen trafiko aldaketak egin nahi ditu udalak. Gaztañaga aldean dagoeneko lanean hasi dira eta urte bukaerarako herriko bideen norabidea aldatuta egongo dira.

Etxebizitza berriak egiteko ez da diru kopururik finkatu. Hasiara batean arlo honetan ez da inbertsiorik egingo, baina udalak Olarriondo inguruan babes ofizialeko etxebizitzak eta etxe sozialak egiteko asmoarekin aurrera darrai. Arlo honetan hau da udalaren apostu nagusia.

GASTUAK	
Pertsonal gastuak	332.679.908
Ondasun arrunten erosketak	148.174.145
Finantza gastuak	20.673.689
Transferentzia arruntak	99.798.152
Inbertsio errealak	643.258.459
Kapital transferentziak	45.721.000
Pasibo finantziarioak	68.840.668
Guztira	1.359.146.021

SARRERAK	
Zuzeneko zergak	240.954.196
Zeharkako zergak	114.000.000
Tasak eta bestelakoak	192.552.028
Transferentzia arruntak	365.081.291
Ondarezko sarrerak	14.201.000
Kapital transferentziak	389.954.533
Inbertsioak besterenganatzea	42.402.973
Guztira	1.359.146.021

Agustin Lizasok beteko ditu alkate funtzioak

Donostiako Zigor Arloko Epaitegiak urtebetez alkatetza kargu publiko oro uztera eta 250.000 pezetako isun-zigorra ordaintzera kondenatu zuen Joxe Antonio Altuna alkatea pasa den urtean. Horregatik, 2001. urteko urtarilaren 1etik abenduaren 31 bitartean beteko du zigor hori. Egoera honen aurrean, Hauteskunde Batzorde Zentralaren erizpideak jarraituz Agustin Lizaso alkate-ordeak hartuko du alkatetza 2001. urte honetan. Hala ere, aurrez aipaturiko kargua Joxe Antonio Altunak berreskuratuko du automatikoki 2002. urteko urtarilaren 1ean.

Joxe Antonio Altunak, ordea, udalean lanean jarraituko du. Kargu publikorik ezin du bete, baina alkatearen aholkulari modura egingo du lan alkatetza berriz hartu bitartean

2000ko gastu aurrekontuaren laburpena	Langile gastuak	Ondasun arrunten erosketak	Finantz gastuak	Transferentzia arruntak	Inbertsio errealak	Diru transferentziak	Finantz pasiboak	Guztira
Zerbitzu orokorrak		25.390.478		12.450.000	3.000.000	30.000.000		70.840.478
Gizarte ekintza		8.171.214		17.888.753	15.040.000	5.000.000		46.099.967
Enplegua garapena		4.377.261			10.000.000			14.377.261
Hezkuntza		9.813.988		3.877.720	11.000.000			24.691.708
Kultura		7.675.000		15.100.000	18.923.730			41.698.730
Gaztedia		2.500.000		900.000	5.000.000			8.400.000
Kirola				40.107.880	1.754.000	10.000.000		51.861.880
Hazienda Udaltzaingoa		4.030.385	20.673.689		500.000		68.840.668	51.468.972
Hastapen tailerra		4.968.229						4.968.229
Enplegua-garapen		4.377.261			10.000.000			14.377.261
Hirigintza		8.380.000		46.485	526.012.744			534.439.229
Nekazaritza ingurugiroa		950.000		576.523	11.660.000	721.000		16.797.518
Langilegoa	332.679.908							332.679.908
Euskara		6.275.757		3.371.761	7.150.000			16.797.518
Guztira	332.679.908	148.174.145	20.673.689	99.798.152	643.258.459	45.721.000	68.840.668	1.359.146.021
Bakoitzaren %	% 24,50	% 10,90	% 1,55	% 7,34	% 47,34	% 3,30	% 5,07	16.797.518

Herriko gudari hilei omenaldi beroa egin zitzaien abenduaren 30ean

Urtero bezala Joxe Martin Sagardia "Usurbil", Joxe Luis Segurola "Nazkaz" eta Joxe Mari Aranzastroke "Arrantzale" herriko gudari hilei omenaldia egin zitzaien abenduaren 30ean. Ekitaldi berezi horretan, hiru gudariak omentzeaz gain duela 20 urte egun horretan bertan Miarritzen hil zuten "Usurbil"en irudia ekarri zen gogora. Bere argazkiak, erahilketaren inguruan egun-

karietan agertutako berriak... diapositiba moduan ikusi ahal izan ziren bere kide izan zen Xabier De Miguelen gogoetak entzuten ziren bitartean. Herriko bertsolariek zenbait bertso abestu ondoren, hiru gudarien senitartekoak igo ziren oholtza gainera, eta lore sorta bana jaso ostean familiarteko bakoitzak hildako senidearen inguruan gogoeta bana eskaini zuen. Dantzariak aureskua dantzatu eta Euskal preso-

eskubideak aldarrikatuz Usurbilgo ezker abertzalearen ize-nean Agurtzane Solaberrietak idatzi bat irakurri zuen. Musikaz lagunduriko olerki sorta bat irakurri ondoren Gestorak-eko Juan Mari Olanok hartu zuen hitza eta Irriu abesbatzak kantaturiko "Agur Joxe Martin" abestiarekin amaitu zen herriko frontoian hiru gudariei egin zitzaien omenaldia. Ondoren manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar.



Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 13

LABE-GOXO

Kalkos kopisteria

- Fotokopiak
- Fotokopiak koloretan
- Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- Planoen kopiak (AO arte)
- Ordenadoreko lanak
- Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

MIKEL
IZAGIRRE

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Txakurak eramateko lekukak

Udalak txakurrek beren eginbeharrak egiteko leku batzuk zehaztu ditu dagoeneko. Bertan, panel informatibo batzuk jarri dituzte eta txakurren kaka jasotzeko poltsak ere jarriko dituzte. Horregatik udalak txakurak leku hauetara eramateko eskaera egin nahi du. Hauxek dira leku horiek: hilerri azpiko zelaia, Atxegaldeko plazaren eta aparkalekuaren artean dagoen lur zatia, Etxe Zuri aurreko zelai txikia, Santueneako iuili zaharra zegoen tokia eta Olarriondoko sarrerako zelaia.



Gabon gauaren bezperan giro polita sortu zen herrian. Arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan frontoian bildu ziren Amnistiaren Aldeko Batzordearen Olentzero errebeindikatiboa eta parroko taldeak antolatutako Jaiotza. Elkarrekin kantu batzuk abesteaz gain Euskal Presoen eskubideak aldarrikatuz Gure Artera Bilguneak prestatutako idatzi bat irakurri zen bertan. Horrez gain, jende ugari ibili zen herriko tabernetan kontu kontari.

Liburutegia Kultur etxe berrian

Udarregi zaharra dagoen eraikina berritu behar dutela gauza jakina da. Proiektua egiteko ideia lehiaketa egin bazuten ere azkenean zenbait aldaketa izan dira. Udal liburutegia Txaramuntora pasatzeko asmoa zuten, baina liburutegia jartzeko leku egokirik ez zegoela ikusita, Udarregiko kulturgune berrian kokatzea erabaki dute udal ordezkariak. Etumeta euskaltegia, berriz, Bordaberriko etxe berrietan udalak dituen lokaletara pasako da kulturgune berria eraikitzerakoan.



Ez zen inuxentada izan. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunek barrikotea eta sardin zahar eta gaztaina banaketa egingo zutela iragarria zuten, eta ez zuten huts egin. Eguraldi aldetik ez zuten laguntza haundirik izan, baina jendea gustora egon zen frontoian sagardoa edan eta gaztaina nahiz sardina zaharrak jaten. Giroa berotzeko, berriz, Xabier Legarreta eta Unai Agirre bertsolariak izan genituen, herriko trikitilariak lagunduta noski.



Trakatan trakatan hiru errege, trakatan trakatan Usurbila... Iritsi ziren bai azkenean. Urdaiaatik barrena herriko zenbait auzoetatik pasa eta frontoian amaitu zuten beren ibilbidea urtarrilaren 5ean. Hemen jende ugari zegoen beraien zain. Umeak ilusioz beteta, gurasoak beren seme-alabak geldirik eduki ezinez eta erregeak oholtza gainean hauei zintzoak izan al ziren galdezka. Hori bai, gozokiak banatzen hasi zirenean ez zen giro izan frontoi inguruan.

P A T R I
J A T E T X E A
 Eguneko bazkariak eta afariak
 Nagusia 6, 20170 Usurbil
 Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

LATAILLADE
 ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
 INSTALAKUNTZAK
 ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
 20170 USURBIL
 TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
 Mobila: 609 888021

Pinturas
Ion

 943 83 09 37 ☎ 670 397504

Buruntzaldea 2001: bost herritarako kirol eskaintza zabala

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kiroldegiek osatzen duten Buruntzaldea 2001. urterako egitasmoa aurkeztu eta urte osoan zehar aurrera eramaten dituzten kirol jardueren berri eman zuten pasa den abenduaren 20an Urnietako udalean.

1999ko maiatzean hitzarmen bat sinatu ondoren elkarlanean ari dira Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kiroldegiak. 60.000 biztanleetatik 16.000 kiroldegi hauetako bateko bazkide dira eta hori gutxi ez balitz 4.800 pertsona mugitzen dira Eskola Kirolaren barruan.

Buruntzaldeko kiroldegietako bazkideek onura ugari dituzte. Alde batetik Buruntzaldeko edozein kiroldegitan bazkide modura sartzeko aukera. Beste aldetik La Perlan %10 - %15 bitarteko beherapenak dituzte eta Buceo Euskadik dituen urpeko eskaintzetan ere beherapenak nabarmenak dira. Azkenik, aipatzekoa da Buruntzaldeak eskaintzen duen kirol medikuntza zerbitzua. Hau guztiaz gain beste onura baten atzetik dabil azken aldira Buruntzaldea, Decathlonen erosketak egiterakoan bazkideek beherape-



nak izateko gestioak aurrera-tuta baitaude.

Hala ere, bada bestelako eskaintzarik. Prezioak bateratuak dira eta egutegiak, berriz, adostuak. Aerobik maratokia, pala txapelketa eta squash txapelketak egiten dira urtero eta bost herriak lotuko dituen ibilbide baten proiektua bukatu, onartu eta Foru Aldundiari aurkezteko asmoa dute.



Guzti honekin batera, diagnosi zehatz bat izateko asmoarekin urtero eskola kirolaren datu bilketa egiten da. Atal honetan hiru arlo jorratzeko asmoa azaldu zuten:

- Sentsibilizazioa: prentsari egiten diren gauzen aurkezpena eta informazioa banatzea, gurasoei bi informazio orri banatzea eta dirulaguntzen irizpideen jarraipena egin.

- Prestakuntza: monitoreentzat ikastaro berezituak (esku-baloia, igeriketa...) eta oinarriko ikastaroa.

- Materiala: antolatuko diren ikastaroetarako behar den materiala bildu eta osatzen joatea eta argitaratuta dagoen materialaren berri eskola kiroleko monitoreei ematea.

Josu Aranberri

HAUR JANTZIAK
MERKEALDIAK!



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Zendoia enea
Taberna



Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

TRUKE
TRUKE
TRUKE
TRUKE
TRUKE
Beherapenak!

Erdiko kalea, 2
Tel:37 34 81

Josu Arruti eta Jon Olaizola pala txapelketan irabazle

A benduaren 26tik urtarrilaren 6a bitartean Gabonetako Gazte mailako I. Pala txapelketa jokatu zen frontoian. Herriko pelota elkarteek eta pelotazaleek antolatuta neska-mutilei palan jokatzeko aukera eman nahi zitzairen, baina azkenean mutilak bakarrik izan dira protagonistak nagusi, izan ere neskak ez ziren parte hartzeraz animatu.

Mutilei dagokionez, 14 eta 20 urte bitartekoak izan dute txapelketa jokatzeko aukera

eta 11 bikote izan ziren lehia. Azkenean Josu Arruti eta Jon Olaizola osatutako bikoteak lortu zuen garaipena. Urtarrilaren 6an ziren azken partiduak, eta bertan 30-24 irabazi ziren bigarren postuan gelditu ziren Eñaut Arriaga eta Jon Arrutiri. Hirugarren postua Asier Arruti eta Mikel Mugikak eskuratu zuten Arkaitz Lizeaga eta Jokin Zubiaurri 30 eta 23 irabazi ondoren. Horrez gain, Jon Olaizola izendatu zuten txapelketako jokalaririk onena.



Motzean

✓ Iaz egindako denboraldi bikainaren ondoren sariak jasotzen jarraitzen du Haimar Zubeldiak. Entrenamenduak alde batera utzi eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako denboraldi bukatuaren ekitaldian izan zen pasa den abenduaren 30ean. Bertan, 2000. urteko denboraldian egindako lan bikainaren ordainez sari bat eman zioten. Usurbildarra, Joseba Beloki, Joane Somarriba, Javier Otxoa, Roberto Laiseka eta Mikel Artetxe izan ziren besteak beste sari hau jaso zutenak.

✓ Usurbilgo Judo Taldeak arrakasta ugari lortu zituen pasa den urtean ere. Seigarren urtez jarraian lehen postua eskuratu dute judo taldeen arteko Euskadiko txapelketan. Izan ere, 13 urrezko domina lortu zituzten, 6 zilarrezkoak eta beste 6 brontzezkoak. Bestalde, Espainiako txapelketan 4 domina lortu zituzten Usurbil Judo Taldeko judoek. Sambo borroka modalitatean, berriz, 2 domina lortu zituzten Jugoslavian izandako Europako junior txapelketan eta Borroka Librea beste 9 Espainiako txapelketan. Guzti honen ondorioz Usurbil Judo Taldeko lau kirolari beka bana eman die eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste 3 kirolari etorkizuneko kirolari izendatu ditu.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Pintura erakusketak Udarregi zaharreko aretoan

Udarregiko kulturgunean, erabilera bat baino gehiago ematen zaion aretoan, Mihixe Pintura Eskolako ikasleen bakarkako nahiz taldekako erakusketak izango dira 2001. urte berri honetan. Ikusiko ditugun pinturak, beste batzuren artean, margolari inpresionisten inguruko interpretazioak eta zenbait azterlan pertsonal izango dira.

Beraz, ikusleak jakin beharko du ikasleak, beste pintore batzuk interpreta-tuz- honela, herabeki, beraien sorkuntza-lanetan barneratu ahal izateko-olio-pinturaren mundua erakutsiko digutela.

Honen arabera, ez da margolari profesional eta artista ospetsuei buruzkoa. Ez da hori erakusketaren hauen helburua; baizik ezagutaraztea askorentzat ezezaguna den olio-pintura, agoarras, pintzel, arkatz, ikatz-ziri eta abarren mundu hau batetik, eta bestetik, material hauek arnastu eta irudi piktorikoetan burua sartuta hausnartzen duten herri honetako pertsona eta



jendea. Asmoa pintura artistikoaren munduan barneratzen zaituzten ibilbidea berritzea, zaharkitutako sentimendu eta senak berreskuratzea da. Mihixe txuri batean aurrean jarri, zure ondoan duzula artistaren obra eta beragana zuzentzea, sentitzea, ia usaintzea eta interpretatzea.

Agate Rekondoren erakusketan zenbait urteren buruan egindako lanak bil-tzen dira. Bera izango da

erakusketaren sail honi hasera emango diona, eta gainontzekoak Noaua!ren bitartez iragartzen joango gaitzaizkizue.

Inaugurazioa datorren urtarrilaren 21ean arratsaldeko 18.30tan izango da eta urtarrilaren 28an 18.30etatik 20.30ak arte duzue ikustera joateko azken aukera.

Zuen zain gaude.

Amaia Kasasola

XABIE ER
EDARITEGIA

**Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**

- ✗ Idiazabal gazta
- ✗ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

N • U
Ileapaindegia

MISTOA
*Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura*

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Zaloa Arnaiz: "Sari hauek mundu honetan aurrera egiteko indarra ematen dute"

Arte Ederrak bukatzeko gutxi falta zaion arren, dagoeneko hiru sari garrantzitsu irabazi ditu Zaloa Arnaiz usurbildarrak. Lehenengo, Zumarragako Santixabeletarako kartel lehiaketan. Beste biak, aldiz, duela gutxi eskuratu ditu; Arrigorriagako XIII. Argazki Lehiaketako bigarren saria eta Sondikako IX. Gabonetako Postal-Txartel Lehiaketako lehen saria.

Gure artean ez dira oso ezagunak lehiaketa hauek. Azaldu ezazu lehiaketa hauen nondik norakoak.

Arrigorriagako Argazki Lehiaketan hiru argazki aurkeztu behar ziren serie berdinean eta gaia librea zen. Hiru argazkiak harremanetan egon zitezkeen edota libreki. Nik fakultatean landu nituen bi lan aurkeztu nituen; gaia giza gorputza zen. Saritu zidaten lana joku bat zen eta bertan hankak eta burua agertzen ziren. Hau da, transparentzi bat zen eta tela baten bitartez, argi-iluntasunezko jokua lortzen zen.

Eta Sondikakoa?

Sondikako Gabonetako Postal Lehiaketara, berriz, bost lan aurkeztu nituen. Teknika ezberdinak jorratu nituen; hiru pinturaz egindako lanak ziren eta beste biak tonu konbinaketa lortzeko kartulinaren gainean lixiba erabiliz egindako lanak.

Pinturaz egindako lanarengatik eman zidaten lehenengo saria eta bertan ume batzuk kantari agertzen ziren, fondo batekin,... Lana oso sinplea zen.

Ze jende motak parte hartzen du?

Denetik esan daiteke. Bai hastear daudenak zein argazki munduko profesionalak. Gainera, Estatu mailatik ere jende asko aurkezten da. Esaterako, Arrigorriagan 100 lan aurkeztu ziren; 1go saria Bartzelonako batek irabazi zuen, bigarrena nik eta hirugarrena Murtziako batek.

Zer sentitzen du artearen munduan lehen urratsak ematen hasi den pertsona batek mota honetako sariak irabaztean?

Hasteko txundituta geratu nintzen, astebukaera berean bi sari irabazi nituela jakin bainuen. Lehenengo Arrigorriagatik deitu zidaten 2. saria irabazi nuela esanez. Hasieran ez nuen sinestu, izan ere entzunga bainuen lehiaketa hau ospe haundikoa dela Estatu mailan.

Gainera, Sondikako saria irabazi zenuela era bitxi batean jakin zenuen, ezta?

Bai. Dirudienez bizi-lagun batek eta nik telefono zenbakia berdintsua dau-



kagu. Eta niri deitu ordez, bizi-lagunari deitu zioten lehenengo saria irabazi nuela esateko. Kanean elkar topatzean mezua eman zidan. Hasieran Arrigorriagako sariak ari zela pentsatu nuen, baina Sondikatik deitu ziotela esatean hura ez zela posible pentsatu nuen. Izan ere, egun batzuk lehenago beste sariaren berri izan bainuen.

Aterik ireki al ditzazkete sari hauek?

Ez dakit, baina pertsona bati horrelako sariak irabazteak mundu honetan aurrera egiteko indarra ematen dio. Nire irudimena, sormena lantzen ari nazela erakusten dit eta, gainera, baloratuta dagoela ere bai.

Lan irabazleekin gainera erakusketak antolatzen dituzte, ezta?

Bai eta gainera hau oso positiboa da. Izan ere, erakusketak hauek asko ikasten da; besteek zure lana ikusteaz gain, besteen teknikak, ilustrazioak, lanak, etab. aztertzeko eta ikasteko aukera ematen dute. Geroago, nere lanak egiterako orduan aplikatzeko aukeraizango dut.





Jokin Eizagirre "Txitxo"


 Apaintzailea

 30 urte

ELKARRIZQUETAK

Arratsaldeon, berdin caxo ola que ay. Zeoze ber al dezue eateko, nyk zuryto bat, ni ez dit eze byer, ney beste ebaky bat aterayac, ney basobatur. Clin, clin, txuzzzzt, klan klan clak clak, glu gl glu, tak, tok, clintz. _____

_____ ,,,,

yxil une luze baten ondoren.

AURTEN jarry al due yñaute-ritako gayik? quebaa,, uaiñe, azkeneko momentun ibily byer. Lengo urtian, alaxe ibily gyñun, korrika eta presaka, desdeluego, goatzenak bai, y baño earky pasa giñin eee, oi parrak bota giñizkin, joe, ta onena izan uan, onek ekarry zin gerriko ua txapaskuatapelukaquekañapuftabesteazalduzarianoydekamonaoi..... bitartian, emakume cuadrilla bat, ondoko may batian kafya artzen aydiala, kasualidadya ok e tema beakin.

pues sabeis dequale boy a disfrazar a my ija, de BUS BURNY, jajajajajajaja. (clase guztitako algarac. ondokoac parray eusten lanak ta parabolika deskonektatu ezynik)

bueno, nadye es perfecto no. lasay artzan par pixkat indiñau ta kitto. baño nola inbien BUS BUNY o BURNY o trajia, eso porque eso no sera facil no, que ba si benden en el Rei de las fiestas. jesus neska dirutza earra gastatu bierden, bai ez alden obia

etxian dazkan trapu edo erropekin moldatzia, si no te ba salir un paston no. que ba si sola bale 15.000 pelas, jangoiko potxolua, joder con el conejito,... au erotu intzaigu. oyes si le ace ilusion a la niña, joñi neire ingo liake. aizu baño geo pijametako eo baliyokoin ezta jajaja, jejeje, jijiji...

bueno, bueno bueno ta gu zertaz disfrazatu bieñau. nik bakit si si yo ya se baibai, beno esantzanba, pue beno... jun jungintezke, podiamos ya, botako alden o se leches geo, podiamos yr de Go-GOS ara ik ezden disfraz andiyen biarrik, bestelare alaxe ibiltzeak go-goz, ay ay ama jajajajaja que me muero, kochina eres, (parabolikoak aguantatu ezinik) oyes ipor que no, ara bestiare, ja, je, ji, erotu indittun, pues igualsino, porque no, beno beno ezta pentsatuere, ni ablar, jesus no sera patanto....

Beste cuadrilla bitartian.

oik e earki aidituk, guk e pentsatu biarkoyau zertaz disfrazatu, bai baño, gay librian ezin ibiliko gatxek pa, ez obia yau itxoitia, ara leno denboik ez ta uain itxoin, beti igual ibilibiar e. ortako bakizue ze inbierdan ezta bilereta azaldu tan esan kontuk, beno eateko ze biezue, nei kalimotxo bat nik, kaña, nik e kalimotxo nei patxaran titare bat ateayak....

Lehiaketa



Zer falta da argazki honetan?

**Asmatzaileen artean
Antxeta tabernan bi per-
tsonentzat afaria
zozketatuko dugu**

Santueneako haur eskolatik hainbat eta hainbat ume pasa dira ireki zutenetik. Garai batean orain baino gehiago, noski, bestela aurreko aleko lehiaketan jarri genuen argazkia ikusi besterik ez dago. 27 neska-mutil daude bertan, ez da marka txarra alajaina. Guk horietako bosten izen abizenak eskatu genizkizuen eta baita zuetako batzuk bidali ere. Guri ere guztien izenak lortzea ezinezkoa egin zaigu, baina hala ere izen sorta polita osatu dugu:

Lurdes Balerdi
Alfredo Ruiz
Maika Solaberrieta
Arantxa Torres
Mari Sol Sagardia
Manuel Utrera
Koro Tapia

Antonio Arka
Jose Luis Santamaria
Jesus Anjel Estevez
M^a Mar Ballesteros
America Monje
M^a Jesus Torres
Idoia Iturrioz

Kami Vidal
Carlos Rodriguez
Iñigo Lasas
M^a Mar Gonzalez
Jose Eleinas.

Asmatzaileon artean zozketa egin dugu eta Irati Lasartek izango du Bordatxo tabernan afaltzeko aukera.

**Leku hau zuretzat izan daiteke.
Publizitatea jarri nahi izanez gero
deitu 943 36 03 21 telefonora**

URTARRILAK 12 larunbata

- Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatuta **kontzertua** izango da herriko frontoian gaueko 23.00etatik aurrera. Taldeak: **Suhar, Mugatik eta Legen Beltza**.

URTARRILAK 14 astelehena

- Euskal prozesu demokratiakoaren aldeko **konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

URTARRILAK 18 osteguna

- **Batasuna prozesuko batzarrak** Udarregi zaharrearantz arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Urtarrilak 20 larunbata

URTARRILAK 20 larunbata

- **bilera** udaletxean goizeko 11.30etan.

Urtarrilak 22 astelehena

URTARRILAK 22 astelehena

- **aren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

URTARRILAK 25 osteguna

- **Batasuna prozesuko batzarrak** Udarregi zaharrearantz arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Oharrak

OHARRAK

Neska bat eskaintzen da goizez haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo adineko jendeari laguntzeko. Harremanetarako telefonoa: 943 83 39 74

Pisu bat daukagu **salgai** Muna Lurrin (Olarriondo). Interesatuok deitu arratsaldeko 943 36 45 86 telefonora.

Pisua alokairuan hartu nahi genuke Usurbilen. Telf. 943 36 02 13 (Yolanda edo Iñaki)

Irakasle espezializatuek klase partikularrak ematen dituzte Usurbilen bertan. DBH, Batxilergoa, zientziak nahiz letrak. Esperientzia. Interesa duenak deitu 943 36 52 89 telefonora (Koro).

Neska bat behar da etxekolanak egin eta haurrak zaintzeko. Deitu 943 37 29 38 telefonora (gauz).

Pisu bat alokairuan hartu nahi genuke Usurbilgo erdialdean. Harremanetarako telefonoa: 943 36 02 13

LORAZAINTZA IKASTAROA

Fraisoroko Nekazaritza Eskolak 33 orduko Oinarrizko Lorazaintza Teknikak ikasteko ikastaro bat antolatuta du. Ignacio Azurza Oriamendi Mintegietako paisajistik emango du ikastaroa eta honako egitarau hau landuko du:

- Lorazaintza eta lorategiak
- Kanpoko landareak
- Barruko landareak
- Lurrak eta substratuak
- Ongarriak

Ikastaroa urtarrilaren 15etik 31ra 16.00etatik 19.00etara izango da Fraisoro Nekazaritza Eskolan eta doakoa da. Ikastaro hau lorazaintza arloko langileei nahiz lorazaintzan zaletuak direnei zuzenduta dago.

Izena emateko deitu 943 69 21 62 telefonora.



Kontzertua Usurbilen

- × **Suhar**
- × **Mugatik**
- × **Legen beltza**

Urtarrilaren 12an, ostiralean, herriko frontoian gaueko 23.00etatik aurrera

Antolatzailea: Usurbilgo Gazte Asanblada

Baditugu Noaua! Kultur Elkarteko hiru xextuen irabazleak




Urteroko ohiturari jarraituz aurten ere herriko produktuez osatutako xextuak zozketatu ditugu. Gabonak pasa ondoren dietan jartzeko garaia dela behin baino gehiagotan entzun dugu, baina *Noaua!*ko xextuak etxera eraman dituzten hauek nahikoa jan eta edateko aukera izango dute.

Bazkideen artean banatu ditugun bi xextuak Maria Rosario Elizegi eta Iñaki Aizpuruarentzat (argazkian M^{re} Karmen Esnaola bere emaztea) izan dira. Publizitatea jartzen dutenen artean zozketatutakoa, berriz, Txikilino gozoki dendari tokatu zaio.


Zorionak hiruroi, eta beste bazkide eta publizitate jartzaileei ere bai, zuek ere Noaua!ko partaide garrantzitsuak baitzarete!

Tapak urtez urte


1996-1997



1998



1999



Koadernatu 2000ko Noaúa! guztiak



81-103 zenbakiak

Zein dira eman beharreko pausoak?

👉 Hartu 2000. urteko Noaúa! hamaboskariaren ale guztiak (81-103) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaúa! Kultur Elkartearen egoitzara, Laurok-era edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2000. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.

👉 Noaúa! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, berdin, besteok bezala.

👉 Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.